ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO PROBA 2025

490/2024 EBAZPENA, azaroaren 8koa

2025/05/21

MATEMATIKA

KALIFIKAZIOA

DEITURAK .....

IZENA .....

NANa/AIZa .....

1- Askarian, Anak tartaren erdia jan du, Mariak laurden bat, eta Elenak seiren bat, eta platera hutsik gelditu da. Egia da?

2- Ebatz ezazu ekuazio hau: $\frac{x}{2} + \frac{3x}{4} - \frac{5x}{6} = 15$

3- Egin ezazu eragiketa hau, kalkulagailua erabili gabe:

$$\left[3 + \frac{3}{3 - \frac{1}{3}}\right] \times \frac{8}{11}$$

4- Karlosek, Joanek eta Susanak 3.200 € kobratu dituzte lan batengatik. Karlosek 8 ordu egin ditu lanean, Joanek 5 ordu, eta Susanak 3 ordu. Zenbat kobratu beharko luke bakoitzak, egin duen lanarekiko proportzionalki?

5- Ebatz ezazu ekuazio-sistema hau:

$$x + \frac{y}{2} = 6$$
$$x + 2y = 12$$

6- Sinplifika ezazu adierazpen hau.

$$\frac{4^2 7^3 3^2}{49^2 3^{-1} (-2)^2}$$ (berreturen propietateak erabiliz)

7- 11 urteren ondoren, Pedroren adina duela 13 urte zuen adinaren karratuaren erdia izanen da. Kalkula ezazu Pedroren adina.

8- Laukizuzen baten aldeetako bat bestea baino 6 cm luzeagoa da Zeintzuk dira laukizuzenaren neurriak, 91 cm^2-ko azalera badu?

9- Aurki ezazu zenbat den $\frac{1}{4}$-ren %25 gehi $\frac{1}{5}$-ren %75

10- Hotel batek 23 gela ditu; batzuk bikoitzak dira eta beste batzuk, hirukoitzak. Orain, gela guztiak beteta daude, eta 49 pertsona daude hotelean. Mota bakoitzeko zenbat gela daude?